



### *NIEVES FERNANDEZ VICENTE (Lehendakaria)*

---

Nire lanbide-ibilbideak hezkuntzaren misio humanista izan du ardatz. Haurrei haien ikaskuntza-prozesuan laguntzea haiekin batera ikasteko aukera bat izan da.

Testuinguru askotan lan egin izan dut: ikastetxe publikoetan eta pribatuetan, irakaskuntza formalean eta ez-formalean, ikastoletan eta irakaskuntza-kooperatibetan.

Asko ikasi dut, halaber, hainbat eginkizun betez, irakasle gisa lehenbizi, eta zuzendari gisa azken 12 urteotan, honako ikastetxe hauetan: San Felix ikastola, Artxandape ikastola eta Azkorri irakaskuntza-kooperatiba.

Ibilbide horretan, bi gaitasun izan dira UNESCOk eskatzen digun kalitatezko hezkuntzarantz hurbiltzeko nire garapen profesionalaren ardatz: kudeaketa aurreratua eta berrikuntza. Pozik nago ikastetxeetako lantaldeekin batera egin dudana aitortua izan delako, zenbait sari jaso baitugu: zilarrezko Q, zilarrezko A, urrezko A eta Eusko Jaurlaritzaren Berrikuntzaren Euskadi Saria.

Ibilbide profesionalarekin paraleloan, eraldaketa sozialari laguntzeko nahiari jarraikiz, aktiboki eta etengabe parte hartu dut EUSKALIT – Kalitaterako Euskal Fundazioan, eta UNESCO Etxean (gaur egun erakundeko presidentea naiz).